

Euskeraren Erabilera Normalizatzeko Plana Bilboko Udaletxean

(laburpena)

- Zeintzuk dira Planaren **helburu nagusiak**?
- ✓ Euskera, **zerbitzu-hizkuntza** herritarrekiko harremanetan.

Irizpide egokiak ezarri dira, euskera, gaztelania bezala, ahozko zein idatzizko komunikaziorako hizkuntza izan dadin.

 - Herritarrak eragindako idatzizko harremanetan, herritarrak aukeratutako hizkuntzari jarraituko zaio.
 - Ahozko harremanetan euskeraren erabilera sustatuko da herritarrei harrera egitean.
- ✓ Euskera, beste administrazio batzuekiko **harremanetarako hizkuntza**.

Beharrezko irizpideak jarri dira Udalak, apurka-apurka, harremanak euskeraz izan ditzan horrela adostu duten administrazioekin.
- ✓ Euskera, Udal barruko **lan-hizkuntza**.

Neurriak hartu dira euskera lan-hizkuntza izan dadin baldintza egokiak betetzen dituzten administrazio-ataletan.
- ✓ Bilboko Udalaren ekintza-eremuetan **hizkuntza-irizpideak** erabiltzea.

Bitarteko egokiak jarri dira hizkuntza-irizpideak bete daitezen herritar guztiei eragiten dieten alorretan edo udala ordezkaturata dagoen alorretan; besteak beste, honako hauetan:

 - Kontratazio administratiboak
 - Dirulaguntzak eta laguntzak
 - Argitalpenak, administrazioaren irudia, ekitaldi publikoak.
 - Baimen eta lagapen administratiboen menpeko jarduerak

- Nola finkatu dira helburu horiek?

- Administrazio-ataletan **lehentasunak** ezarri dira; horretarako, lehenengo eta behin, administrazio-atalen azterketa egin da eta honako hauek kontuan hartu dira: administrazio-atalen ezaugarriak, administrazio atala osatzen duten lanpostuen ezaugarriak eta langileen ezaugarriak.
 - ✓ Administrazio-atalak izaeraren arabera sailkatu dira; administrazio-atalak jendaurrekoak, gizarte izaerakoak, izaera orokorrekoak edo izaera berezikoak izan daitezke.
Jendaurrekoak eta gizarte izaerako atalak dira euren zereginak direla eta, herritarrekin harreman zuzenagoa edo kanpo-harreman gehien dituztenak; izaera orokorreko ataletan administrazio barruko lanean dihardute; eta izaera berezietako ataletan eskuz egindako lanak edo lan teknikoak burutzen dituzten atalak dira.
 - ✓ Administrazio-atal elebidunak zehaztu dira. Atal horiek dira euren zereginak hizkuntza ofizial batean zein bestean bete ditzaketanak. Atal elebidun izendatzeko zenbait baldintza bete behar dituzte.

Datu horiek eskuan izanda eta langileei ezarritako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun daten datuak aztertuta, administrazio-atalen artean lehentasunak finkatu dira plangintzaldirako.

Administrazio-atalak zenbat eta herritarrekin, bereziki, gazteekin, harreman handiagoa izan, orduan eta lehentasunezkoagoa da atal horietan ekitea, betebeharrak gehiago eskatuko baitzaie euskeraren alorrean.

- Administrazio-ataletan **hizkuntza normalizazio neurriak** ezarriko dira.
 - ✓ Neurri orokorrak: derrigortasun-data, hizkuntza-eskakizuna, hizkuntza prestakuntza, etengabeko prestakuntza eta aplikazio informatikoak.
 - ✓ Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak: administrazio-atal guztietarako eta atal elebidunetarako jarraibideak.
 - ✓ Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideen itzulpen irizpide osagarriak
 - ✓ Hizkuntza-dinamizazio ekintzak: lehentasunik handienetako administrazio-ataletan egingo diren dinamizazio-ekintzak.

- **Hizkuntza irizpideak** ezarri dira administrazio barruko ekintza eremu desberdinetarako; herritar guztiei eragiten dioten alorretan edota administrazioa zuzenean ordezkaturata dagoen alorretan:
 - ✓ Kontratazio administratiboak
 - ✓ Dirulaguntzak eta laguntzak
 - ✓ Argitalpenak, udalaren irudia eta ekitaldi publikoak
 - ✓ Baimen edo lagapen administratiboan menpe dauden jarduerak

- Nola gauzatu dira helburuak? Eta zein jarraipen izango du euskara planak?

Alde batetik, planari ekiteko erabili izan diren bitartekoak ditugu; beste batzuen artean, komunikazio-plana, inplementaziorako baliabideak, hizkuntza-prestakuntzarako azpiegiturak...

Eta bestaldetik, plangintzaldiaren amaieran ebaluazioa egiten da. Ebaluazio hori langileek egindako aurrerapenak, administrazio-atal bakoitzean emandako aurrerapausuak... azaltzen duen txostenean gauzatzen da, eta hurrengo plangintzaldiaren oinarriak finkatzeko funtsezko elementua da.